

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Hasierako onespina ematea igerilekuen zerbitzua eta hirigintza arloko lizentzien eta jakinarazitako jardunak egiaztatzearen tasa arautzen dituzten zerga ordenantzen aldaketari

Udalbatzak, azaroaren 26an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespina ematea Gaubeako udal igerilekuen eta kirol instalazioen zerbitzuaren zerga eta hirigintza arloko lizentzien eta jakinarazitako jardunak egiaztatzearen tasa arautzen dituzten ordenantzen aldaketari.

Eta betetzeko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. eta 65.2 artikuluetan eta Toki araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 56. artikuluan xedatutakoa, espedientea jendaurrean jartzen da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeke eta egokitzat jotzen diren alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igaro eta alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat emango da.

Gaubea, 2022ko urtarrilaren 3a

Alkate-lehendakaria
GORKA SALAZAR SENSO